

## **BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Gure app-aren xedeetako bat look-ak eratzeko arazoak dituzten pertsoneri bizitza erraztea da. Horrela, modara joateko aukera izango dute eta goizetan arropa pentsatzen egotea saihestuko dute.

Gure aplikazioaren balioa **kualitatiboa** izango litzateke, aplikazio honek zerbitzu pertsonalizatua eskeiniko baitio bezeroari punta puntako look-ak ahalbideratuz.

## **Lehiakideengatik bereiz gaitezkeen baliabideak:**

Gure produktuak balio ugari ditu eta horietako bat **berritasuna** da. Guk aurkezten dizuegun aplikazioa inoiz ikusi gabea da, nobedade bihurtuko den eta aukera ezin hobeak emango dizkizuen app paregabea izan dezakezue eskuetan.

Aplikazioak edukiko duen **prestazioa** hurrengoa da: Google lens-en antzeko aplikazio baten bidez, zuk etxean duzun arropari argazki bat atera eta look desberdinak osatuko ditu sistemak, dituen algoritmo batzuen bidez. Modan dauden konbinazioak sortuko ditu, azken tendentziei jarraituz.

Bakoitzak etxean duen arroparen arabera egingo dira look-ak. Horregatik, bezeroaren eta haren estiloaren arabera sistemak sorturiko konbinazioak **pertsonalizatuak** izango dira.

Bezeroak lan erraza edukiko du. Aplikazioaren sistemak dituen algoritmoek bezeroari **lana erraztuko** diote. Bezeroak egin beharreko lan bakarra haren etxean dauden jantziei argazki bat atera eta aplikazioan bertan jartzea izango da.

Lehen aipatu dugun kontzeptu bat ere hartuko dugu elementutzat, **diseinua** alegia. Norberaren gustuetara ahalik eta gehien egokitu ahal izateko, diseinu mota asko egongo dira aplikazioan. Horrela, bezero bakoitzak bere estiloari egokitutako diseinu edo konbinazioak aurki ditzake.

Gure aplikazioaren hasierako **prezioa** doakoa izango litzateke, baina, premium atala erabili nahi izanez gero, bezero bakoitzak hilabetero diru kopuru jakin bat ordaindu beharko du. Premium atalaren prezioa aldakorra izango da, honek eskaintzen dituen zerbitzuen arabera. Premium motaren arabera look kopuru desberdinak izango dituzte bezeroek.

- Oinarrizko premium atala: 4€ hilero.
- Premium aurreratuena: 8€ hilero.

Mundu guztiak **eskuragarri** izan dezakeen aplikazioa da gurea. Beharrezkoa den gauza bakarra gailu teknologiko bat edukitzea da, hori edukiz gero aplikazioa eskuragarri izango duzu.